

PRENTSA OHARRA

Mungia aurrera doa HAPO barria egiteko bidean

- **Erredakzino-taldeak Plan barriaren Aurrerapena jasoko dauen uri-eredua aurkeztu deutse udalbatzari eta Hirigintza Plangintzako Aholku Batzordeari, behin betiko onarpena emon aurretik**
- **Hemendik aurrera udalbatzak herritarrakaz batera garatu beharko ditu gaur aurkeztutako egitura-antolamenduko laneko ildoak**

Mungian, 2022ko maiatzaren 31n.- Mungiako Hiri Antolamenduko Plan Orokor barriak aurrera jarraitzen dau. Epeek ezarten daben moduan, hemendik aurrera korporazinoak herritarrakaz batera garatu beharko dituan egitura-antolamenduko lan-ildoak gaur aurkeztu jakez udalbatza osoari eta Hirigintza Plangintzako Aholku Batzordeari –bertan, udalerriko hainbat sektore-eremutako alkarteak dagoz ordeztuta–.

“Gaur partekatu dan informazioaren zati handi bat –ingurune fisikoa, baldintza sozioekonomikoak, indarrean dagon planaren garapen-egoerea, udalerrian eragina daukien hainbat planen inplikazinoak (batez be LAG Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak) eta sareen eta hornikuntzen egoerea– webgunean argitaratu zan orain dala denpora bat, baina gaur, Plana idazteko proiektuaren enpresa esleipendunaren erredakzino-taldeak bere aurkezpenean, uri-eredua definituko daben egiturazko antolamenduko laneko ildoak jorratu ditu”, azaldu dau Alaitz Erkoreka Lurralde eta Ingurumen Saileko alkateordeak.

“Hori bai, azpimarratu behar da oraindino proposamenak baino ez dirala, eta ez dagola ezer itxita. Aholku Batzordetik xehetasunetan aurrera egin behar dogu”, zehaztu dau Erkorekak.